

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko ekainaren 30a. VIII. urtea. 2.253. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Gainditzen elkartea «oso pozik» Kriskitin saria eskuratu duelako

Gormutuen elkarteak jaso du ONCEn saria, Tolosan, zeinu hizkuntzako Nazioarteko I. Film Laburren jaialdia antolatzeagatik **o2**



Gainditzen elkartekoek eskerrak eman nahi izan dizkiote ONCEn I. URKIZU



M. IZARTENBURUA

→ **San Pedro eguna ospatu dute.** San Pedro eguna zen atzokoa. Aurreko egunetako beroa atzean utzita, egun euritsua izan zen, baina hala ere, Asteasun, Leaburun eta Urkizun jai giroa izan zen nagusi. Asteasun esate baterako, herritar ugari gerturatu ziren meza nagusia bukatuta egindako sokadantza ikustera. **o6**

Hik Hasik hezkuntzaren geroaz gogoeta egingo du udako topaketetan

Ikastaroak uztailearen 4, 5 eta 6an izango dira Donostiako Santo Tomas lizeoan; Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak ere ekarpena egingo du antzerkiaren gaineko jardunaldiak eta ikastaroa antolatuta **o4**

3008 *GURE INGENIARIEN NEURONA GUZTIAK DITUZU ESKURA HEMEN* **5008**

**PROBATUZ GERO,
HARTUKO DUZU**

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**P-3008
P-5008**

Errausketa zero tratu berria martxan!
Errausketa labe propizterekin.



Pasa den larunbatean jaso zuen saria Gainditzen elkarteak, Donostian. HITZA

Gormutuen Gainditzen elkarteak ONCEren Kriskitin saria irabazi du

Gipuzkoako irratietako entzuleek bozka emanaz aukeratu dute irabazlea hiru izendaturen artean

Itzea Urkizu

Tolosaldeko eta Goierriko gormutuen Gainditzen elkarteak, ONCEk urtero ematen duen urrezko Kriskitin saria irabazi du. Espainiako Itsuen Erakundeak urtero antolatzen duen sariketa da Kriskitinarena, eta aurten goa hamargarrena izan da.

Gizarte bateratzaile bat sortuz, gaitasunen bat gutxituta duen pertsonen gizarte integrazioaren alde lan egiten duten erakunde zein norbanakoak saritzen ditu ONCEk. Gainditzen elkarteak,

zehazki, Tolosan, zeinu hizkuntzan egindako Nazioarteko I. Laburmetrai Jaialdia lehenengoz antolatzeagatik jaso du saria. «Pertsona gorringana joera artistikoak eta teknologia berriak gerturatu dituzte, eta horrekin batera, atek zabaldu dizkiote hainbat jardueretan parte hartzeko oztopoak izaten dituen jende multzo bati», azaldu du ONCEko ordezkaria den Ana Garridok.

ONCEk proposatutako beste bi izendatuak Kutxa eta Adeco izan ziren. Kutxak, pertsona gormutuentzako kutxazain automatikoak egokitzeagatik jaso zuen izendapena. Adeco, berriz, pertsona ezinduek lan munduan sartzeko burututako planagatik. Horrela, aste betez Gipuzkoako irradi kateetan kanpaina bat egin ondoren, entzuleek emandako bozkek erabaki dute sariaren irabazlea.

Urrezko Kriskitin saria, pasa den ekainaren 25ean Donostian ospatu zuten Kriskitin lasterketaren ondoren jaso zuen Gainditzen elkarteak.

«Oso pozik gaude»

Gainditzen elkarteak ordezkariak «oso pozik» agertu ziren sariaren berri emateko eskainitako prentsaurrekoan, eta are gehiago, aldamenean izan dituzte beste bi izendatuak «enpresa indartsuak» izan direla kontuan hartuta. Lehenik eta behin, ONCEri eskerrak eman nahi izan dizkiote, eta era berean, baita euren alde bozka eman zuten herritarrei ere.

Gainditzen elkarteak egindako agerraldian, Tolosako Udalaren ordezkari moduan izan zen Ibai Iriarte alkatea. Zorionak eman zizkien sarituei, eta «balintza fisiko desberdinen arteko ulermena eta elkarbizitza guztion lana» dela azaldu zuen. Bide horretan, udalak Gainditzen bezalako elkarteak babesteko «posible duen guztia» egingo duela nabarmendu zuen Iriartek.

Hauek izan dira, 2002az geroztik, saria jaso dutenak: Donostia-ko Udala, Gureko Inaki Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundia, Fortuna Kirol Elkarteak, EHUko Gaitasunak Gutxitutako Ikasleentzako Arreta Zerbitzua, Tandem gida boluntarioak, Real Sociedad, Gipuzkoako Kirolari Paralimpikoak eta Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak.

Bi emanaldi izango ditu asteburuan Musika Bandak

Urteroko moduan, Amaroizko jaietan kontzertua eskainiko dute, sei obra interpretatuz

I. Urkizu Tolosa

Tolosako Musika Bandak bi hitzordu izango ditu datorren asteburuan.

Ostiralean, uztaik 1, urteroko emanaldia eskainiko du bandak Amaroizko jaietan. Kontzertua arratsaldeko 20:00etan hasiko da, eta gutzira sei obra interpretatuko dituzte.

Emanaldiak bi zati izango ditu. Santiago Loperen *Gerona* pasodoblearekin hasiko dute lehenengo zatia, eta Giancarlo Gazzanik moldatutako *Santana*, eta Cahpi-

ren *Tambor de granaderos* oboertura ere joko dituzte.

Bigarren zatian, berriz, Kees Vlak-ek konposatutako *Caribbean concerto* obrarekin hasiko dira; obra honek, *St. Eustatius*, *Saba* eta *St. Maarten* zatiak izango ditu. Honen ondoren, Estremiana-k moldatutako Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* kantua ezaguna joko dute, Astrainen *La alegría de San Fermin (El Riau Riau)* baltsarekin emanaldia amaitzeko.

Banden alardean

Larunbatean, berriz, hilaren 2an, Getarian ospatuko duten Banden Alardean parte hartuko du Tolosako Musika Bandak. Bertan izango dira, tolosarrekin batera, Elgoibarko eta Getariako musika bandak.

• tolosa@hitza.info

Bi pelikula izango dira Leidor-en datorren asteburuan

Woody Allenek zuzenduriko azken filma, eta adineko bi emakumeren inguruko izango dira ikusgai

I. Urkizu Tolosa

Helduei zuzenduriko bi film ikusleko aukera izango da gaurtik aurrera, Tolosako Leidor aretoan.

Gaur 19:15ean eta 21:45ean zine forumaren barruan, *Lola* pelikula izango dute bertaratuek, jatorrizko bertsoan. Brillante Mendozak zuzendutako film honetan, Lola izeneko bi amona izango dira protagonista. Baten bilobak bestea erailko du, eta bakoitza bere aldetik, eta bakoitza bere ahultasunetik, dirua lortzeko bideen bila hasiko da; batek bilobaren hileta elizkizuna ordaintzeko beharko du dirua, eta besteak, berriz, biloba denbora batez kartzelatik ateratzeko. Igandean, 19:30ean eta 22:00etan, eta astelehenean 20:30ean, Woody Allen-en *Midnight in Paris* izeneko komedia erromantikoa izango da. 1920ko hamarkadako garaietara itzuli nahi duen idazlea da pelikula honetako protagonista.

Bihar zabalduko dute Usabal kiroldegiko udako liburuegia

Irailaren 24a bitarte, kanpoko igerilekuan literaturaz, egunkariez edo doako wifiaz gozatu ahal izango da

I. Urkizu Tolosa

Bihar zabalduko dute, Usabal kiroldegiko kanpoko igerilekuan jartzten duten udako liburuegia.

Uztailaren 1etik irailaren 24a bitarte egongo da zabalik, astelehenetik larunbatetara. Ordutegiari dagokionez, berriz, 15:00etatik 19:00etara bitarte eskainiko dute udako liburutegi zerbitzua.

Helduek egunkariak, aldizkariak, komikiak, eleberrirak, turismoko gidaliburuak, sukaldaritza liburuak eta antzekoak eskuratzeko aukera izango dute. Haurrek ere, bestalde, komikiak, ipuinak eta liburuak izango dituzte, eta baita margoak eta jokoak ere.

Gainera, udal liburutegiko bazkide egiteko aukera ere izango da, eta bertan ez dagoen libururen bat nahi izanez gero, eskatu eta hurrengo egunerako ekarriko dute. Usabalen doako wifia ere izango da erabilzailentzat.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Binefarko titiriteroek 'Dragoncio' lana eskainiko dute gaur

Ikuskizuna dohainik izango da Euskal Herria plazan, ondoren Topic-en erakusketa zabalduko dute

A. Imaz Tolosa

Topic-en erakusketa berria jarzeko unea iritsi da, eta honi ongi gertorria egiteko, Binefarko titiriteroak ekarriko dituzte gaur, 19:00etan, Euskal Herria plazara. Hauek *Dragoncio* lana eskainiko dute doan.

Binefarko titiriteroek musika tradizionala erabiltzen dute euren emanaldietan, instrumen-

tzu berezien soinua erakutsiz. Taldea musikari batek eta bi aktoarekin osatzen dute, euren ikuskizunei jai giro bikaina jartzea lortzen dutelarik.

Panpinen eta eszenografiaren diseinua Ricard Monros-ek sortu du. Horretarako, komikietatik hartu du inspirazioa, baita Gaudiren arkitekturatik ere.

Ipuin gehienek duten bezala, *Dragoncio*-k ere badu bere ikasgaia: imajinarioa eta jolasaren bidez gustuko ez duguna aldatzea posible dela erakusten du.

Ikuskizuna 20:00etan amaituko da, eta orduan zabalduko dute Topic zentroan erakusketa berria, hain zuzen ere, Binefarko titiriteroena.



Gutuna

M15 eta greba orokorra

M15 mugimendua eta Euskal Herriko greba orokor berri bat

Azkeneko urteetan Estatu espainiarreko milioika gazteren eta langileren borondatea krisia eta enpresariaren diru gosea geratzeko erantzun eraginkor bat ematea izan da. UGT eta CCOOko agintarien harresiarenkin topo egitea izan da oinarritzko arazoa, hala ere. Hauen estrategiak, bake sozialean eta PSOREn gobernuarekin eta patronalarekin eginiko etengabeak akordioetan oinarritutakoa eta mota guztietako kontzesioak egiteko konpromisoa duena, mobilizazioaren bidea ixten zuen. Gazte eta langileek borrokarako borondatea dutela ikusi genuen Hego Euskal Herrian, euskal gehiengo sindikalak deitutako hiru greba orokorretan.

CCOO eta UGTko agintariak lortu duten bakarra Estatu espainiarreko borroka atzeratzea izan da. M15 mugimendua erakusten ari den bezala. Baina M15 mugimendua aliatuak behar ditu indartzeko eta mobilizazio zabal eta indartsuago bat lortzeko. Hau posible izateko beharrezkoa du langile mugimendura zuzentzea. Honek ez du esan nahi gazterik indarririk ez duenik, justu kontrakoak erakutsi baitu. Beharrezkoa dena da gazterien eta langile klasearen indarrak elkartzea eta geldiezinezko mugimendua batean bihurtzea, milioika herritarrek helburutzat dituzten aldarrikapenak inposatzeko gai izateko.

Euskal Herriatik ere ekarpen garrantzitsuak egin diezazkio-

kegu mugimendu honi. Euskal Herrian ere M15 mugimendua ilusioa sortu du milaka gazte eta langileren artean. Mugimendua honi ezker abertzalearen eta euskal gehiengo sindikalaren indarrak elkartzeak M15ari laguntza handia eman-go lioke. Ezker abertzaleak eta euskal gehiengo sindikalak beren eskuetan hartzen badute eronka hau, biztanleriaren aurkako oso gogorrek jasaten ari garen honetan (hitzarmen kolektiboaren erreforma), posible izango litzateke mugimendua klaseko perspektiba bat eta beharrezkoa duen indarra hartzea. M15 mugimenduari koordinatuta Euskal Herria beste greba orokor bat deituz, borroka pauso kualitatibo bat emango luke. Gainera, sindikatu estataletako delegatuak eta afiliatuak erakartzeko aukera ezin hobea litzateke, hauetako asko oso kritikoak baitira CCOO eta UGTko agintariak egiten ari direnarekin.

Horrelako greba batek ikaragarriko eragina izango luke Estatu espainiarrean eta erasoak geratzeko oso garrantzitsua izango litzateke eta, aldi berean, gure aldarrikapen demokratiko nazionalen alde babesa lortuko genuke. Bizitzari garen garai hauetan, borroka internazionalki elikatzen dira. Euskal Herriatik, langile mugimendua gazteriarra elkartuta ekarpen handia egin genezake kapitalismoaren aurkako mundu mailako borroka honetan.

■ **Ibon Artola.** Euskal Herria Sozialista aldirikariko kidea.



Haur sahararrak Tolosara iritsi zirenean, familia hartzaileak zain zituzten Tolosan. A. IMAZ

Oporrak Bakean ekimenari esker haur sahararrak bi hilabetez egongo dira gurean

Tolosaldea Garatzenek kudeatzen duen programa, udalei eta familia hartzaileei esker finantzatzeko da

Asier Imaz Tolosa

Sanjoanen hasierako suzuria Saharako haurrek jaurtiki zuten iragan astean. Neska-mutil hauek, Tolosaldea Garatzenek kudeatzen duen Oporrak Bakean programari esker aurkitzen dira gurean, eskualdeko herritarren etxeetan. Saharar errefuxiatuen kanpamentuetatik, Tindouf-etik eta Argeliatik, etorri dira Tolosaldera uda pasatzera. Tolosaldea Garatzenetik azaldu dutenez, «bi hilabetez egongo dira gurean, jolasean eta uda berezi bat igarotzeko; guztiotzat oso esperientzi aberatsa izan ohi da».

Programaren kudeaketa Tolosaldea Garatzenek ematen baldin badu, finantzaketa Tolosaldeko

udalen eta familia hartzaileen esku geratzen da, haurren mantenuaz adibidez hauek arduratzen baitira.

Haur sahararrek eskualdeko herri hauetan egingo dute euren egonaldia: Tolosan 8 haur, Villabonan 5 haur, Ibarren 2 haur, Anoetan haur bat eta Altzon beste bat. Bestalde, Leaburun, Berrobin eta Adunan ere haur bana izango dira.

Tolosaldea Garatzenetik azaldu dutenez, bi hilabete hauetan zehar irteerak egiteko aukera izango dute: Txiki Park, Igeldo, Kutxa espazio, jolasak, inguruko herrietako festak, saharar festak... eta nola ez gure mendi, igerileku eta itsasoaz gozatzeko aukera ere izango dute.

Oporrak Bakean helburuak

Tolosaldea Garatzenek zehaztu duenez, programa honako helburu hauek ditu:

-Bizi dituzten baldintza gogorak denboraldi labur batean ahaztea.

-Osasun azterketa sakonak egiteko aukera izatea.

-Dituzten elikadura arazoei aurre egiteko ondo elikatze aukera izatea.

-Basamortuko udako bero izugarriaz libratzea (55° ingurukoa).

-Beste kultura eta errealitate bat ezagutzeko aukera ematea: itsasoa, mendiak,...

-Haur sahararrak euren herriari bizi duen gatazkaren enbaxadore egokienak dira, eta euren herriaren garsiaren ahots bizia direnez, sahararrak nola bizi diren azaltzeko aukera izaten dute.

Saharako gatazka

Saharar herriak 35 urte daramatza egoera honetan, eta 200.000 saharar inguru bizi dira errefuxiatuta. Lehen mailako beharrak asetzeko zailtasunak dituzte: elikagai eta ur gutxi, sendagaien eskasia...beraz, nazioarteko laguntza ezinbestekoa dute. Hau dela eta, saharar haurrei uda paregabea igarotzeko aukera ematen dien guztiei eskerrak ematea oso garrantzitsua da Tolosaldea Garatzenentzat, batez ere, finantzaketaz arduratzen direnei.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 Quad-a salgai. IAT-a pasata, extra askorekin eta oso egoera onean. Interesatuek, deitu 600 75 25 37 telefonora.

■ **Etxe adosatua.** Eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, 2 autorentzako garajea, txokoa eta jardina. Deitu 678 26 76 57ra.

ALOKAIRUA

■ **Apartamendua.** Peñiscolan 7

pertsonentzako egokitutako apartamendua alokatzen da. Hondartza aurrean. Balkoia, igogailua, aire egokitua, parkinga eta bi igerileku. 617 42 89 52.

GALDUTAKOAK

■ **Bi txakur.** Gorbearrazako bi artzain txakur marroi galdu dira. Gazteluko baserriatik alde egin zuten ostegunean. Ikusi dituenak dei dezala 636 44 22 54 zenbakira.



**IURREAMENDI EGOITZA
TOLOSA**

IRAGARKIA

Tolosako Iurreamendi Egoitzak ile-apainketa zerbitzua kontratatu nahi du.

Deialdi honen oinarriak eta eskaera orri normalizatuak Iurreamendi Egoitzako bulegoetan (Tolosako Iruia etorbideko 6an) daude interesatuen eskura edo Tolosako Udalaren web orrian.

www.tolosakoudala.net

Eskaerak aurkezteko epea 2011ko uztailaren 8an bukatuko da.

Tolosan, 2011ko ekainaren 28a Iurreamendiko lehendakaria Ibai Iriarte San Vicente

Collaradara igotzeko aukera Aizkardikoekin

Uztailaren 10ean da irteera eta bezperan aterako dira Villanua; izena emateko azken eguna uztailak 7a da

E. Maiz Amasa-Villabona

Aizkardi Mendi elkarteak uztailaren 10erako irteera antolatatu du Pirinioetara. Canfranc, Collarada eta Villanuatik egingo dute ibilbidea. Uztailaren 9an 19:00etan aterako dira Olaederratik Villanua, eta bertan pasako dute gaua. Goizean jaiki eta Canfranc al-

dera gerturatuko dira ibilbidea bertatik hasteko. Igoera Ip haranetik hasiko dute, eta 2.100 metro-tara dagoen urtegraino igoko dira. Jarraian 2.600 metro-tara dagoen Ip-eko muinoraino igoko dira, Collarada tontorrera igotzeko (2.883m). Bertatik, Villanua jaitziko dira. 20 kilometro inguruko ibilbidea prestatu dute, eta guztia egiteko bederatzir ordu beharko dituztela aurreikusitako dute.

Izena emateko, 649 71 71 82 telefono zenbakira deitu behar da 20:00etatik 22:00etara, edo Aizkardiren elkartera joan beharko da. Uztailaren 7a izango da izena emateko azken eguna.



Joxe Mari Auzmendi, Joxe Mari Agirretxe Porrotx, Idoia Gereñu eta Añorgako antzerki eskolako ordezkaria. E. MAIZ

Hezkuntza foro berezia egingo du Hik Hasik XII. Udako Topaketetan

Antzerkizale elkarteak Hik Hasiren Udako Topaketekin batera, jardunaldiak eta ikastaroa antolatatu ditu

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Guztira 20 ikastaro izango dira Hik Hasiren XII. Udako Topaketa Pedagogikoetan. Uztailaren 4, 5, eta 6an Donostiako Santo Tomas lizeoan izango dira. Arratsaldetan berriz, hezkuntza foroko saio irekiak egingo dituzte. Topaketa hauek Hik Hasik eta EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak antolatuak dira. Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak ere bat egin du topaketa hauekin antzerkiari lotutako ikastaro eta jardunaldiak prestatuz.

Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiko ordezkariak, Idoia Gereñu Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen idazkariak eta Joxe Mari Agirretxek Porrotx, izan zuten ikastaroen berri emateko ardura.

Aurten ere esparru zabaleko ikastaroak prestatu dituzte: maskaragintzatik hasi, eta espresio-koak, musikakoak, teorikoak, adimen emozionalekoak, hizkuntzakoak... izango dira.

Azken urteetan eztabaida handia izan dutela dio Joxe Mari Auzmendik, heziketak nolako izan behar duen erabakitzerakoan. Familietan eta gizartearen izugarritzako aldaketak eman dira, eta eskolaren paperak ere ezberdina izan behar duela uste dute. Hori dela eta, foro bat egingo dute hurrengo belaunaldiak nola hezi behar diren eztabaidatzeko. Talde bat sortu dute hausnarketarako. Horretarako metodologia berezi

bat erabiliko dute: Espazio Irekieren Teknologia. Honekin, etorkizuneko hezkuntza nolakoa izan behar den jasotzeko ahalik eta ekarpen gehien jaso nahi dituzte. Aurten nobedadea, foro hau izango litzateke.

Antzerki irakasleei lagunduz

EHAZEK lehen aldiz, Hik Hasiko topaketen barnean, ikastaro bat eskainiko du antzerki irakasleak prestatzeko. Ander Lipus, Ainara Gurrutxaga eta Asier Sota aktore ezagunak eta antzerki tailerretan irakasle bezala esperientzia dutenak izango dira irakasle lanetan ariko direnak. Ikastaroa egunero 09:00etatik 14:00etara izango da.

Antzerki irakasleek bizi duten egoera kaskarretik ateratzea dutela helburu azpimarratu du Gereñuk. Ez aktore moduan bakarrik, baizik eta hezkuntza mailan ere trebatzen joatea nahi dute. Lan handia eta luzea dutela aurretik argitu du Idoia Gereñuk, baina hasiera eman nahi izan diotela Hik Hasiko topaketekin.

Era berean, eta iazko arrakasta ikusita, aurten ere, Esperientziza jardunaldiak egingo dituzte, uztailaren 4ean. Ate irekiak izango dira, eta parte hartzeko ez da izenik eman behar. Bertan antzerkia eta ahozkotatua izango dute gaia, eta gogoetarako eta eztabaidarako aukera izango da. Lau aditu izango dira, eta euskal antzerkigintzarentzat ekarpen handia izango da.

Honekin batera, uztailaren 6ean, Sustapen plana mahai inguru egingo dute. EHAZEK sustapen taldea du eta bere lana «eritea» dela azpimarratu du Agirretxek. Sustatu egin nahi dute herriz herri. Eskolak sortu eta astero, «ikasi, jaso eta jantzi» egin nahi dituzte zaleak eta profesionalak. Beharrezkoak diren bitartekoak aztertu eta instituzioak bultzatu nahi dituzte. «Bide bat egiten ari gara eta gauza asko dauzkagu ikasteko eta egiteko» dio Agirretxek. Eta «modu partekatuan eta denen artean egin nahi dugu».

↓ XII. Udako Topaketa Pedagogikoak

UZTAILAK 4, 5 ETA 6

- **Ikastaroak.** 20 ikastaro izango dira, eta guztiak euskaraz: Euskara ebaluatzeko proba; Gure adimena nola eta norantz gidatu; Ez dut zigortu nahi; Haurrei zuzendutako maskaragintza; Adimen emozionala; 2-3 urteko haurren psikomotritate praktika; Haurrentzako masajea...
- **Ordutegia.** 09:00etatik 14:00etara, Donostiako Santo Tomas lizeoan.
- **Hezkuntza Foro Berezia.** He-

- zitzaile, aditu eta sortzaileekin, Hezkuntzaren etorkizuna amesgai, ekingai: nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak? izeneko foroa izango da.
- **Esperientziazak jardunaldia.** Josune Zabala, Julia Marin, Matxin Irigoien eta Iñaki Ziarrusta adituak eta moderatzaile lanetan Ander Lipus izango da. Aslehenean 16:30ean izango da, eta ate irekiak izango dira.
- **Mahai inguru.** Asteazkenean, 16:30ean izango da, eta 18:00etan Añorgako antzerki eskolak Cromlech eskainiko du.

www.euskalherriko **PLAZA**.com

ESKAINITZA
(uztailaren 30era arte)



SOLAGÜEN

Ardo zuri hau egiteko, viura mahatsa erabiltzen dugu, erabat. Mahatsondoek 46 urte dituzte, batez beste, eta 500 eta 560 metroko garaieran daude. Mahatsa eskuz biltzen da.

12 botilako kaxa: 43 €



La Maja

Oliba olio birjina estra. %100 arbekina. Nafarroako Oliba sor-markakoa. Hotzean eginga da, ollibak bildu eta hamabi ordu igaro baino lehen.

6 botilako kaxa: 36 €

Eskaria egiteko, sartu
www.euskalherriko plaza.com
helbidean

Infantilen igeriketa taldea bikain aritu da Gipuzkoako txapelketan

Tolosaldea Igeri Kirol Taldeko 15 gaztek hartu zuten parte Bergaran izandako udako lehiaketan

Txema Zumarraga Tolosa

Tolosaldea Igeri Kirol Taldeko infantil mailako 15 igerilarik hartu zuten parte pasa den asteburuan Bergaran izandako Gipuzkoako Infantilen Udako Txapelketan.

Tolosaldeko igerilariek 15 domina eskuratu zituzten; urrezko bat, zilarrezko 6 eta brontzezko 8.

Errelebo lasterketan neskek 3 brontzezko domina eskuratu zituzten; 4x100 estilo askean, batetik, eta 4x200 estilo askean, bestetik. Mufiletan, aldiz, bigarren postua eskuratu zuten 4x100 estilo askean, eta hirugarrenkoa 4x200 askean.

Bakarkako probak

Bakarkako probei dagokionez, Ane Gonzalez aipatu behar da. Izan ere, hirugarren egin zuen bizkarreko 200 metroetako proban. Jon Ander Perezek, bere aldetik, zilarrezko bi domina etxeratu zituen: estilo askeko 100 metroetan eta estilo askeko 50 metroetan. Imanol Eceizak ere zilarrezko bi domina irabazi zituen: estilo askeko 100 metroetan eta bizkarreko 100 metroetan.

Nerea Esandik ere lan txukuna egin zuen; zilarrezko domina eskuratu zuen, nahiz eta, estatu mailako txapelketan parte hartzeko beste proba bat gainditu behar harko duen. Javier Valdiviesok zilarrezko domina irabazi zuen bizkarreko 200 metroetako proban. Maialen Mujikak brontzezko domina lortu zuen bizkarreko 50 metroetan, eta Elene Cuadrado ere hirugarren egin zuen tximeletako 200 metroetan. Idoia Alonsok eskuratu zuen urrezko domina bakarra, baina ez ezustekorik gabe. Proba bukatzerakoan min handia zuela esaten hasi zen, eta gauean apendizitis ebakuntza egin behar izan zioten.

Beñat Bidaolak, Iñigo Alkortak, Paula Velazquez, Garazi Jakak, Irene Zumarragak eta Erika Amundarainek ere saio onak egin zituzten.

Asteburu honetan ere txapelketa dute Tolosaldeko infantil mailako igerilariek. Irunen Euskal Herriko Txapelketa izango dute, eta taldearen helburua da «lan txukuna egin eta marka onak egitea, horrela Valladolideko Espainiako Txapelketarako txartela lortu ahal izateko».

Irudia Ibarra



ALURR LEKEITON

Ibarrako Alurr dantza taldeko Errota eta Banintz taldeek Lekeitioko 35. Euskal Jaietan hartu zuten parte asteburuan. Guztira 35 dantzari joan ziren Bizkaiko herrira. Batetik, larunbatean, *Oinazez* ikuskizun berria eskaini zuten, eta bestetik, igandean, Euskal Herriko euskal ezkontza zaharrenetarikoa parte hartzeko aukera izan zuten. HITZA

ORAIN, EGON ON LINE INOIZ BAINO GEHIAGO



INTERNETEKO BEZERO IZATEAGATIK

EUSKALTELEN PINTXOA
eskuratuko duzu

hilean
5,9€tik hasita,
lehen urtean

Eta, gainera,
etxeko Interneten
ABIADURA BIKOIZTU
EGINGO DIZUGU



zuntzOptikoa

Deitu 1717ra - www.euskaltel.com

Zoaz Euskaltelen saltoki batera 2011/09/01a baino lehen, sustapen hau eskuratzeko gaitzak. PINIXOA DOAN izango duzue. Gogoratu tarifa finkoa duen Euskaltelen pintxoak bikoiztu egiten duela zure etxeko Interneten abiadura. Etxean Interneti duten bezeroentzako (2 M, 5 M, 12 M zain 24 M-ko DUOA) abantaila eskusitua. 18 hilabete irauteko konpromisoa. BEZA ez dago sartuta.

Tolosaldea ›



Asteasun, agurra dantzatu zieten Pili Legarra herriko alkateari. M. UGARTEMENDIA



Urkizun hamaiketakoarekin ospatu zuten San Pedro eguna. ASIER IMAZ



Leaburun dultzaineroen kalejirarekin eman zioten hasiera egunari. Gero meza, hamaiketakoa, dantza emanaldi edo toka txapelketa izan zituzten, besteak beste. MAIER UGARTEMENDIA

Euriz eta umorez bustitako San Pedro eguna izan da

Asteasun bihar jarraituko dute jaiekin; Urkizun eta Leaburun atsedean hartuko dute asteburura arte

Maier Ugartemendia

Euria goitik behera ari zuela argitu zuen atzo, San Pedro eguna. Baina, hori ez zen nahikoa izan Asteasuko, Tolosako Urkizuz auzoko eta Leaburuko herritarrek

etxean uzteko. Bustita bazen ere euriak noiz behinka atsedean ematen zuenean, ederki aprobetxatzen zuten jaiarekin jarraitzeko.

Asteasun, meza, sokadantza, hamaiketakoa, pilota partidak, musika jaialdia eta Gugaz taldearen erromeria izan zituzten San Pedro egunean. Honekin batera elizako organo berriua jarri zuteneko urteurrena ere ospatu zuten, meza bere doinuak entzun ahal izan zirelarik. Tolosako Urkizuz auzoan, bere aldetik, meza nagusia eta hamaiketakoa izan zituz-

ten. Eta, Leaburun, dultzaineroak, meza, dantzariak, hamaiketakoa, toka, ume jolasak, txokolata jatea eta barrikotea izan zituzten.

Asteasun bihar ere ospakizun eguna izango dute, jubilatuen eguna ospatuz; baina Urkizukoek eta leaburuarrek asteburura arte itxaron beharko dute festekin jarraitzeko. Urkizun bihar mus txapelketa izango dute, eta igandera arte jarraituko dute jaiekin. Leaburun, berriz, larunbatean ekingo diete berriro jaiei, eta igandean agurtuko dituzte jaiak.

↓ Asteasuko jaiaik

EKAINAK 30, GAUR

- 11:00. Meza izango da. Ondoren, Aitzondo Elkaratek Herriko Jubilatuei eskaintzen dien hamaiketakoa.
- 13:00. Herri kirolak: Lapazaran taldearekin lasto altxaketa, lasto botatzea, ingura eta gurdi proba. Ondoren, harri jasotzaileak: Aimar Irigoien eta Izeta II.a.

- 14:30. Jubilatuen bazkaria egingo dute pilotalekuan. Trikitilariak Xapre eta Zaharra izango dira, eta bertsolariak ere izango dira: Telleria eta Zeberio.
- 18:00. Herriko dantzariak emanaldia eskainiko dute.
- 19:00. Egan taldearen lehen saioa.
- 22:30. Egan taldearen bigarren saioa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena


Autodeterminazio eskubidea eskatzeko, herritarren argazkia

Nazioen Mundua herri ekimenak bi mila lagun bildu nahi ditu Larraitzen mosaiko erraldoi bat egiteko

Imanol Garcia Larraitz

Bi mila lagun bildu nahi ditu Nazioen Mundua herri ekimenak larunbatean Larraitzen, autodeterminazioaren aldeko herritarren argazkia ateratzeko. Mosaiko mugikor bat egin nahi dute erabakitzeo eskubidea aldarrikatzeko. Autodeterminazioa gero eta argiago izeneko kanpainaren barruan kokatzen da Larraitzen egin nahi duten ekimena. «Orain arte hainbat ekimen bultzatu ditugu, jende ezagunekin, Goierriko alkateekin, Eskozia eta Euskal Herriaren arteko topaketa... Oraingoan protagonistak herritarrak izatea nahi dugun», dio Angel Oiarbide Nazioen Mundua ekimeneko kideak.

Larraitzeko mosaikoan nahi duen orok parte hartu dezake. 10:30ean elkartuko dira bertan. Antolatzaileek puntualtasuna eskatu dute. Lau marrazki edo



Larunbatean Larraitzen egin nahi dituzten lau irudiak. HITZA

mosaiko erraldoi erakutsiko dituzte. Lehenengoan «Autodeterminazioa» hitza eta Euskal Herriko mapa azalduko dira. Bigarrenengoan, hitzarekin batera hautestontzi bat azalduko da eta gutun-azal bat bertara sartzen. Hirugarrenengoan gutun-azala barruan egongo da. Erabakitzeo eskubidea aldarrikatuko dute bi irudi horiekin. Laugarrenengoan, hautestontziaren barruan Euskal Herriko mapa irudikatuko

dute eta «Selfdetermination» hitza jarriko dute, hau da, autodeterminazioa ingelesez. «Euskal Herrira begira egindako ekimena da, baina nazioarteari ere jakinarazi nahi diogu gure nahia. Horregatik ingelesez ere jarriko dugu autodeterminazioa», azaldu du Oiarbidek.

Irudiei argazkiak atera eta grabazioa bi modutara egingo dute. Alde batetik, garabi batetik ariko dira guztiaren jarraipena egiten.

Bestetik, Joxe Ramon Agirre *Marrron* mendizaleak parapentearekin jauzi egingo du Txindokitik eta airetik jarraituko du ekimena. Behin mosaiko erraldoiarena bukatuta, Abaltzisketako frontoian bazkaria egingo dute. Txaranga, musika eta bertsolariak izango dira. Horretarako txartelak salgai daude Larraitzeko tabernetan nahiz Goierriko ohiko lekuetan.

Antolatzaileek deia zabaldu

dute eta, besteak beste, Bizkaitik eta Donostialdetik interesa agertu dute. Anoetako eta Ibarako udalek beraien babes eman diote egitasmoari eta herritarrei parte hartzeko deia zabaldu die. Parte hartzeko interesa duenak, edozein argibidetarako 652 775 923 eta 649 311 757 telefono zenbakietara deitu dezake edo nazioenmundua@nazioenmundua.net posta elektronikora idatzi.

Eskozia, eredu

Nazioen Mundua ekimena Idiazabalera jaio zen orain lau urte. Gero Goierrri osoko ekimena bihurtu da. Autodeterminazio eskubidea gizarteratzea da bere helburua, oinarri politiko gisa hartu dadila, topagune izan dadila alderdi eta mugimendu politikoan artean.

Urte hauetan Eskoziarekin hurreman estua izan dute. «Han autodeterminazio eskubidea denek defendatzen dute», dio Oiarbidek. «Kontserbadoreek ere ez lukete ulertuko eskubide hori ez izatea. Eskubidea defendatzen dute eta ezezkoaren alde egiten dute». Eskozia eredu hartzen dute eta Nazioen Mundua ekimenekoak. Bertara joan izan dira, hango parlamentuan egon dira eta Highlands-eko kirok txapelketan parte hartu dute. Hain justu, Larraitzeko mosaiko erraldoiaren aurreko ekimenetako bat *Unea iritsi da* jaialdia izan zen, Eskozia eta Euskal Herriak autodeterminazio eskubidearen alde egindako ekimena.

→ Laburrak

San Joan jaietako zenbaki saritua 0766 da

ABALTZISKETA ▶ San Joan jaietan zozketa egin zuten eta Jai Batzordetik zenbaki sarituaren berri eman dute. Zenbaki saritua 0766 da eta saria bi lagunentzako afaria Abaltzisketako Ostatu Tabernan. Zozketa igandean egin zuten, zaldi lasterketaren ondoren.

Ohiko bilkura egingo dute, bihar, 20:30ean

AMEZKETA ▶ Udalbatzak ohiko bilkura egingo du bihar, 20:30ean, udaletxean. Besteak beste, ondorengo gaiak aztertuko dira: Alkatetzaren ebazpenak; udaleko ohiko bilkurak egiteko egunen izendapena; kontuen batzorde berezia osatuko duten kideen izendapena; organo kolegiatuen udal ordezkariak izendatzea; Mankomunitateak, erakunde autonomak,...; eta Larraitzeko bidean eraikiko diren 10 udal etxebizitzatasaturen zozketa arautzeko baldintza agiriaren onarpena.

Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa abian jarri du udalak

I. Garcia Amezketa

Amezketako jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du udalak. Laugarren urtea da lehia prestatu duena. Festa batzordeak herritar orori parte hartzeko deia zabaldu die. Irabazleak bere irudia eta izena egitarauaren azalean agertzeaz gain, jaietako pilota partidarako bi sarrera eta bi lagunentzako afaria lortuko ditu saritzat. Oinarrii dagokionez, adina librea da, lanak jpg formatuan aurkeztu behar dira (marrazkiak, argazkiak,...) eta udaletxean aurkeztu behar dira uztailearen 19a baino lehen.

Bestalde, festa batzordetik diotenez, jaietako egitarauan bere enpresaren iragarkia agertzea nahi duen orok udaletxean eman beharko du diru laguntza. Borondatearekin batera, txartela uzteko eskatzen diote. Guztia uztailearen 19a baino lehen.

Irudia ◊ Alegia



TXINTXARRI, TXISTULARI ALARDEAN

Tolosako Berdura plazan elkartutako entzuleek gustura entzun eta kantatu zituzten sanjoanetako txistulari alardean eskainitako doinuak, gehienak euskal abestiak. Alegiako Txintxarri abesbatzak Tolosako Udal Txistulari Bandarekin eta me-

tal boskotearekin batera kantatu zuen. Iñaki Letamendia Tolosako Txistulari Bandako zuzendariak gidatu zituen taldeak. Azken bi abestietan Garbiñe Orbeagoz Txintxarri abesbatzaren zuzendariak zuzendu zuen. BIXENTE GARCIA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Bilduren batzarra izango da gaur, 20:00etan uda-letxean.
- **Ibarra.** Uztailaren 2 eta 3ko IX. Langostino Moto Festan parte hartzeko *langostinomotofesta@gmail.com* helbidera idatzi behar da.
- **Leitza.** Leitzaaldeko Bilgune Feministak eta Sexu Askatasunaren Lagunok-ek Sexu askatasunaren aldeko eguna ospatuko dute gaur. 20:00etan Aurrean *Neska mutil, neska-neska; mutil-mutil...* mahai ingurua izango da EHGAM Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimendua, Lumatza Nafarroako bollera (soropil) feministak, eta Bilgune Feministak taldeen partaidetzarekin. 22:00etan Ateakabeltz gaztetxean, herri afaria egingo dute.

JAIK

- **Asteasu.** San Pedro jaien barruan gaur, 11:00etan meza, eta ondoren, Aitzondo elkartek herriko jubilatuei eskaintzen dien hamaiketako; 13:00etan herri kirolak; 14:30ean jubilatuen bazkaria frontoian; 18:00etan herriko dantzarien emanaldia; 19:00etan Egan taldea; eta

22:30 berriz ere Egan taldea ariko da.

- **Ugarte.** Larunbatean egingo duten betizu jaterako txartelak Goikoetxea Enean eskuratu daitezke (943 65 33 17).

ANTZERKIA

- **Tolosa.** Amaroako XIII. Antzerki Astearen barruan gaur, Irantzu Mantxoren *Rabasadako oroitzapenak* 19:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Larraul.** Pisuak eta balantzak Ekomuseoan iraila bitarte.
- **Ibarra.** Ikasturtean zehar egon diren tailerretan egindako lanak ikusi daitezke uztailaren 8a bitarte Kultur Etxean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**

Irudia Tolosa



EDURNE PASABANEK JASO DU SARIA

Edurne Pasaban mendizale tolosarrak herene-gu jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Kutxaren 2010eko Euskal Herriar Unibertsala saria. Epaimahaia tolosarrak «Euskadiren izena mundu osoan zabaldu» duela nabarmendu zuen

sari banaketan. Era berean, «diziplina, nekaezintasuna eta grina» balioak zabaldu dituela, eta «erronketan jarraitutasuna eta bere burua gaitzetzeko indarra» erakutsi dituela nabarmendu zuen epaimahaiko kideek. HITZA

FLINERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI eta SULABEA

24 H..
943 694 873

www.flinerariavascongada.com